

Euskara lan-munduan sustatzeko hitzarmena

Kokapena.

Badira dagoeneko 30 urte baino gehiago Bergarako ume eta gazteek euren derrigorrezko ikasketak D ereduan egiten dituztela.

Eskolaz kanpoko munduan (kulturan, kirolean, aisian...) ere aurrerapauso nabarmenak egin dira azken urteetan eta nagusiki euskaraz funtzionatzen du.

Lan-munduan, aldiz, euskararen presentzia nabarmen ahulagoa da, nahiz eta zenbait enpresatan aurrerapauso garrantzitsuak eman diren.

Hori horrela izanik, eta kontuan hartuta lan-mundua ezinbesteko eremua dela euskararen sustapenerako, behean sinatzen duten entitateek honako hitzarmena egitea erabaki dute.

HITZARMENA

1.- HELBURUA. Hitzarmenaren helburua da Bergarako enpresak euskara sustatzeko urratsak ematea lan-mundua ere euskarazko eremu bihurtzeko.

2.- ENTITATEEN KONPROMISOAK.


Hitzarmena sinatzen duten entitateek honako konpromisoak hartzen dituzte:

Oinarrizko konpromisoak.

- Enpresak HARIXA programarako solaskidea izendatzea eta langileei hitzarmenaren berri zabaltzea.
- Enpresako hizkuntza-egoeraren diagnostiko laburra egitea, talde teknikoak finkatutako ereduen arabera eta haren laguntzarekin.
- Hitzarmen kideen arteko harremanetan euskara sustatzea eta gutxienez beste hitzarmenkideen euskarazko idatziak onartzea.
- Urterako egitasmoa zehaztea eta bertan, gutxienez, ekintza berri bat jasotzea.

Aurrera begirako garapena. Hitzarmena sinatzen duten enpresa eta entitateen izaera eta hizkuntza-egoera oso desberdina izanik, enpresa bakoitzak bere ibilbidea finkatuko du, urratsez urrats konpromiso berriak hartuaz. Hona hemen erreferentzia gisa proposatzen diren konpromisoak:

- Lanbide Heziketako ikasleen egonaldiak euskaraz eskaintzea.
- Langileei zein LH dualeko ikasleei harrera egitean euskarazko baliabideen gida eskaintzea: euskara ikasteko aukerak, euskara praktikatzekoak...



- Hizkuntza paisaia euskaratzea.
- Langileei euskara ikasi edo praktikatzeko bideak eskaintzea: ulersaioak...
- Ahozko erabilera sustatzea: Euskaraldiko ariguneak eta beste.
- Webgunea euskaratzea.
- Hizkuntza irizpideak finkatzea.
- Barne erabilerako dokumentazioa (kontratu, nomina...) euskaraz jartzea.
- Enpresak lana euskalduntzeko izandako esperientzia eta praktika onak zabaltzea.
- Besterik.

Industria enpresa ez direnen konpromisoa. Industria enpresa izan gabe hitzarmen hau sinatzen duten entitateek (ikastetxe, euskara elkarte, banketxe eta abar) konpromisoa hartzen dute industria lantegiekin dituzten harremanetan euskara bultzatzeko euren zerbitzuak euskaraz eskainiaz, sustapen-jardueretan lagunduaz, eta abar.

3. HITZARMENAREN, DINAMIZAZIOA, JARRAIPENA ETA LAGUNTZABIDEAK.

Bergarako Udalak behar diren giza baliabideak jarriko ditu hitzarmenaren dinamizazioaz eta jarraipenaz arduratzeko.

Era berean, bestelako laguntza eta zerbitzuak ere eskainiko dizkie hitzarmeneko partaide diren entitateei, honakoak, adibidez:


- Lanerako lagungarrien sareko bilgunea, enpresei askotariko baliabideak eskainiko dizkiena: hiztegiak, euskarazko ereduak, praktika onen informazioa...
- Konpromiso bakoitzerako baliabideen gida.
- Euskara ikasi edo praktikatzeko bideak: ulersaioak, mintzalaguna...
- Udalak enpresei eskaintzen dizkien dirulaguntzetan hizkuntza irizpideak txertatzea...
- ...



Jarraipen batzordea. Hitzarmenaren jarraipena egiteko eta norabidea zehazteko lan-mahaia eratuko da hitzarmena sinatu duten entitateetako ordezkari osatua. Lan-mahaia hiru hilean behin elkartuko da, gutxienez.



Hitzarmena sinatu eta 2 urte igarotakoan tarteko ebaluazioa egingo da.

4. HITZARMENAREN IRAUPENA

Hitzarmen honen iraupena 4 urtekoa izango da.



ALET taldea S.L. 	ELKARLAN ESTUDIOA SLP 
Bankoa ABANCA 	EMBALAN3 sistemas de embalaje S.L. 
BELMEK doitasun mekanizatuak 	ENPRESARE elkarteak 
BERGARAKO UDALA 	ERROTA-GAIN, S.L. 
COMERCIAL URCELAY S.A. 	FAGOR EDERLAN S.COOP 
ECENARRO S.COOP. 	Industrias FEGAR S.A. 
ELAY-LAN S.L.U 	FERROTOR Zerbitzu Metalurjikoak S.L. 

Talleres FILBER S.L. 	METAGRA Bergara S.A. 
GEHIBER Machined Components 	MIGUEL ALTUNA LHI 
JARDUN euskara elkarte 	MUJKA burdindegia eta industria hornidurak S.L. 
KUTXABANK SA 	ROYDE Koop. 
LABORALKUTXA 	RURALKUTXA 
Almacenes LASCAR S.L. 	SORALUCE S.Koop 
Construcciones Mecanicas Jose LAZPIUR S.L.U. 	TECNOSYSTEM, Tecnologia y sistemas para EDM SL. 

Tornilleria SEGUR S.A. 	Talleres UKONDARTZ, S.L. 
Tratamientos Térmicos TTT, S.A. 	ZERBIMEK, Zerbitzu eta gestio mekaniko integrala 
Industrias UGATU S.L. 	ZETABI arkitektura bulegoa S.L.P. 
GOITU eraikuntzak S.L. 	Maderas Ipiñarri S.L. 
IZPI S.L. 	MATZ-ERREKA KOOP.ELK. 

Bergaran urtez luzez lan handia egin da lan-munduaren euskalduntzean. Hala ere, bizitzako beste esparru batzuekin alderatuta, lan-munduarenean euskararen presentzia nabarmen ahulagoa dela ikusita, arlo horretan indar egin behar genuela ikusi genuen Udalean, eta praktikara eraman dugu, zuekin elkarlanean, 'Harixa' programaren bitartez.

Lehen ekimena hitzarmen hau sinatzea izan da. Bergarako askotariko 38 entitatek sinatu dugun hitzarmen honekin elkarri esan diogu zer egiteko prest gauden, eta elkarri lagunduko diogu bidea egiten. Hor du bere indarra, askoren artekoa izate horretan. Eskertu nahi dizuet adierazten ari zareten konpromisoa eta opa dizuet, opa diogu 'Harixa' ez dadin eten.



Gorka Artola Alberdi
Bergarako Alkatea